

AURKEZPENA

Bideak Batzen izeneko enpresa gara eta Donostian kokatuta gaude, Gros auzoan (Donostia). Kirolarekiko interesa duten, baina zailtasun fisiko zein mentalak dituzten pertsonekin lanean aritzen gara. Gure helburua, pertsona horiei kirola egiteko aukera ematea da.

Gure enpresaren ideia nagusia pertsona horiek entrenatzea da. Baina ez dugu nahi pertsona horiek gizartetik kanpo sentitzea; horregatik, astebururo haien familien parte hartzea sustatzen dugu, ekintza desberdinak antolatuz. Horrez gain, hiruhileko bakoitzean torneo bat prestatzen dugu, berriz ere familien parte hartzea sustatuz.



Ondorioz, inklusioa lantzen dugu eta pertsona horiek ez dira bakarrik sentitzen.

Bideak Batzen hainbat pertsonentzat prestatuta dago.

- **15-40:** Alde batetik, gure enpresa prestatuta dago arazo mentalak dituzten 15 eta 40 urte bitarteko pertsonentzat, bai mutilentzat, bai neskentzat.
- **15-60:** Bestetik, arazo fisikoak dituzten 15 eta 60 urte bitarteko pertsonentzat, bai mutilentzat, bai neskentzat.
(baina egun berezietan etortzen diren pertsonen adina aldatu daiteke)

Urtean zehar, entrenamendu ezberdinak prestatzen ditugu eta hiruhileko bakoitzean kirol desberdin bat lantzen dugu.

- Lehen hiruhilekoan, **futbola** lantzen dugu.
- Bigarrenean, **saskibaloia**.
- Hirugarrenean, **eskubaloia**.



Esan bezala, hiruhileko bakoitzean kirol bat lantzen dugu eta denbora-tarte horretan kirol horretara egokitutako eta talde bakoitzaren zailtasunetara egokitutako ariketak lantzen ditugu. Horrez gain, hiruhileko bakoitzaren amaieran, denbora-tarte horretan landu dugun kirolari buruzko torneo bat antolatzen dugu. Bertan, zailtasunak dituzten pertsonen senideak parte hartzen dute.

Asteburuetak jarduerei buruz hitz egiten dugunean, familiek ere parte hartzen dute; izan ere, esan dugun bezala, gure helburu nagusia inklusioa zabaltzea da.

Alde batetik, bezero bakoitzarentzako terapia pertsonalizatuak ditugu. Horiek, entrenamenduak dauden orduetan egingo dira, hilabetean behin. Horrez gain, talde terapiak egiten ditugu, asteazkenetan, entrenamendurik ez daude eta. Terapia hauek gure bezero berezientzat egokitutak daude, momentuz ez dugu kanpoko jendearekin lan egiten.

Beste aldetik, hitzaldiak egiten ditugu. Hauek eskola eta erakunde desberdinetarako egokitutak daude.

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa (GKEF-FGDA) gure konpetentzia da. Gure kasuan, lehen esan dugun bezala, zailtasunak dituzten pertsonen senideak ere parte hartzen dute. Astebururo egiten ditugun ekintzetan eta egun berezietan antolatzen ditugun torneoetan. Aipatutako horiek beste enpresarekiko desberdintasuna erakusten dute. Urtean hirutan torneoak antolatzen ditugu. Ondorioz, zailtasunak dituzten pertsonak gizartean onartuak sentitzen dira.

Azkenik, gure denda onlinea dugu, bertan gure enpresaren logoa duten produktuak saltzen ditugu; hala nola: kiroleko arropa, motxilak, agendak, kantinplorak...

Enpresa honen helburua inklusioa bultzatzea da, ekintza desberdinetan arazoak dituzten pertsonak arazorik ez dituzten pertsonekin elkartuz.

Agenda 2030 ekintza-plan globala da, 2015eko irailean Nazio Batuen Erakundearen (NBE) kide diren estatuak onartua. Agenda 2030aren helburua garapen jasangarria sustatzea da mundu osoan, garapen jasangarriaren hiru dimentsioen artean ikuspegi integral eta orekatu baten bidez: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa.

Gure kasuan, AGENDA 30eko helburu hauek betetzen ditugu:



3. OSASUNA ETA ONGIZATEA ⇒ Osasuna zaintzea guretzat zerbait funtsezkoa da, kirol ekintzak egiten ditugu ingurune osasuntsu bat lortzeko. Aldi berean, inklusioa zabaltzen ari gara, entrenamenduak mistoak direlako.



5. GENERO BERDINTASUNA ⇒ Talde mistoak daude, hau da; bai neska bai mutilak elkarrekin entrenatu eta asteburuko ekintza

batera egiten dituzte. Horrekin genero berdintasuna bultzatu nahi dugu.



10. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA ⇒ Gure enpresaren helburu garrantzitsuena, desberdintasunak murriztea da. Eta honekin batera, inklusioa zabaltzea. Ekintzak egiterakoan, familiak eta lagunak gure bezeroekin nahasten dira.



16. BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK ⇒ Gure enpresan justizia egiten da arazo hauek dituzten pertsonengan: izan ere, hainbat kirol esparruetan ez dituzte aukera berdinak arazorik ez dituzten jendearekin alderatuz. Gainera, eremu lasai bat egongo da, non denen artean errespetuz jokatuko dute.